

20

# TOMASH IÑASHIYO DONOSTIYAN

JOSTIDURI PAR-GARRIA

EGINTZA BATIAN



DONOSTIAN

RAIMUNDO ALTUNA REN MOLDIZKIRAN

1921

ATU

9484



H-67363  
F-21290

ATL

29184

# TOMASH IÑASHIYO DONOSTIYAN

JOSTIDURI FAR-GARRIA

EGINTZA BATIAN



DONOSTIAN  
RAIMUNDO ALTUNA-REN MOLDIZKIRAN

1921

# EGILLEAK

---

TOMASH IÑASHIYO.....	(Aitona.)
BENARDO .....	(Suya.)
BONIPASHIO.....	(Panadeiko morroya.)
GREGORIOCHO.....	(Echeko mutikua.)
ANDRE JOAKINA.....	(Echeko-andria.)
PRANCHISKA.....	(Neskamia.)



*Lanchu au donkitzen dio egilleak bere  
lagun maite, Enrique Elizecheari.*

Ramón Illarramendi.



## EGINTZA BAKARRA

---

Iruditegiak egintza onetako, bear du izan moldatua gisa onetan. Benardoren echeko gela nagusiya; eskubitara ate bat gelara ematen dubela; beste ate bat atze aldetik sukaldera; eta beste bat eskerretara kalea ematen dubela. Iruditegian erdiyan mai bat estalpe (1) aundi batekin, kuadro batzuek eta dimbre (2) bat. Gañerakua aukeratuko du arteskari jaunak. Burtiña alchatzerakuan agertuko dira Andre Joakina eta Pranchiska, gela nagusiya moldatzan.

### LENENGO IRUDIA

#### Andre Joakina eta Pranchiska

- A. JOA. Baster sagun mai au piška bat Pranchiska, azpi ori garbitu dezagun.
- PRAN. Be ialaſen Andria. (*Lagunduaz*).
- A. JOA. Uste det onena gendukela, gauzik baliosuenak emendik gordetzia; zergatik ez naiz piyatzen nere Aitarekin; ainda atrebitua...
- PRAN. ¿Ura ere orrelakua al degu?
- A. JOA. ¿Ez aldakizu zein dan? ez dezute differentzi aundirik ez, zuek biyek.

---

(1) Tapete. (2) Timbre.

- PRAN. Ez naiz ni Jaunari eskerrak orrelakua,  
echeko-andria.
- A. JOA. Bai zera! nola izango zera ba? atzoko  
sulla autzitzia ere zuk egin bear sen-  
duben.
- PRAN. Dabillenan kontuak, echeko - andria;  
dabillenan, kontuak... eta dena, mutill  
zikin bat dalako. Gaur ere; pitarra ate-  
ratzera jechi naiz-enean bera, an eto-  
rri zait mutill deabru ura. ¿Eta zertara?  
neri burla egitera; ez dabillki beste  
konturik buruan; bañan gaur arrapa-  
tu izan banuen!...
- A. JOA. Bañan zer esaten zizun bada?
- PRAN. Zer esaten ziran?..... esango diot bada  
echeko-andria. Askotan bezela, asaldu  
du atian ertzian bere mutur simur ura;  
eta asi zait beriala... ¡Pranchiska koipe!  
¡Pranchiska koipe! eta nik; utzi pazien-  
tziyan. Orainchen erekia det kanillan  
giltza, etzan iſiltzen. ¡Pranchiska koi-  
pe! ¡Pranchiska koipe! eta ni echeko-  
andria... amorrazi zait ainbesterano,  
non tira diyoten kanillaren giltza.
- A. JOA. Bañan kanilla ichiko senduben?
- PRAN. Ez andria, ez; berari segi joan naiz  
kaliak barrena. Arrapatu izan ba-  
nuen.....
- A. JOA. Eta, pitarra iſuritzen utzi al dezu?
- PRAN. Atera naiz-enean bai andria; bañan  
orain etorri naiz-enean etzan tanto bat  
bakarrik ere iſuritzen.
- A. JOA. ¡Ori da preskura dakartzuna!

- PRAN. Ez andria, dana izerditua nago.
- A. JOA. ¡Ai nere Jaungoiko maitia! au ere  
neri gertatu bear sitzaidan. (*Aserretuaz*). Egin zaidazu mesede, nere begi-  
yan aurretik gordetziaz emakumia, ne-  
ri odolak irakin azi gabe. Gauza bat  
zuzen ez dirazu egiten.
- PRAN. Emendik aurrera egingo ditut ba.
- A. JOA. ¡Zer egin bear dezu zuk!... mendian  
ardi kontuan egon bear senduben ton-  
ta bat zera ta.
- PRAN. Ez naiz ni tonta, echeko-andria; ni  
naiz Pranchisca Aldaburu Piñuetakua,  
eta erriko botikayo jaunak ere maki-  
ña bat aldiz esana; el Pranchiskacho  
de Piñuetakos.
- A. JOA. Zuaz, zuaz; eta armariyuan dauden  
perrachiku oyek, jarri nagusiya etor-  
tzerako.
- PRAN. ¿Eskalletan jarriko alditut, echeko-  
andria?
- A. JOA. ¿Eskalletan prejitu bear al dituzu?....  
begira; saude geldi geldirik sukaldian  
silla batian eśerita.
- PRAN. ¿Zeñetan eśeriko naiz?
- A. JOA. Ori ere galdetu egin bear!... lenda-  
bizi topatzen dezunean. (*Joaten da Pra-  
chiska*).

### BI-GARREN IRUDIA

Andre Joakina bakarrik

¡Ori neska traketza zerda ori! ez  
daukat beste erremediyorik, ill au

pasa ezker... echeraz bialdu bearko det. ¡Nere lagun Pillipak, ez dauka etorkizun charra bere orrekin! eta gaisuak uste du, munduan ori besterik ez dala... Onera etortzerakuan erosia zioskan soñeko, zapata eta erriyan billatu zituen musu-zapirik politenak; bañan ez dira orrentzat egiten diranak. Nere lagunan alaba dalako barkatzen diyot orrenbesteraño; bestela... ankak ariñ atera bear lituke bai eche ontatik (*gelako atetik begiratuaz*) ¡amarrik! laster du trenak ordua ere, eta nere aita nola dan etortzekua, bialdu bearko det gure Gregoriocho birea, aitona echeratu desan; bestela bakarrik galduko litzake. Arrek ere istilluen batzuek sortuko diskigu; ¡ainda meatza (1) ura ere! Pranchiska litzake ona emaztetako arrentzat; zuzenduko luke ederki. Deitu sayoan Gregoriochoren billa bialdu desan. (*Deika*) ¡Pranchiska!... ¡Bai zera! Jaungoikoak daki non dagoan; ¡gelen batian ote dago? (*abiatzen da eta allegatzen danian esaten du*) ¡ederki neska! oriden pachara (*jendeari*) arrosa ortzetan dubela lasai lasai lo dago. Nik egin bear  
detana da, biar goizian dijoala: adieraziaz lagun Pillipari nere aitaren bitartez... parajiak ez dubela ongi artzen, eta ezin jan eta loorik egin dubela; zurrungaka dago baño;

---

(1) Baro.

modu onetan sinistu asiko diyot; zergatik onek esan ta beñepen ez du ezer ere jakingo. Orainchen orretik esnatu bear det (*sartzen da barrenen ojuka*). ¡Pranchiska!...

### IRU-GARREN IRUDIA

#### Lengoa eta Pranchiska

- PRAN. ¡U!... (*asalduaaz*) ez dit ikara chikiya eman, echeko-andria.
- A. JOA. Ezagun dezu beñepen...
- PRAN. Ez ba... ez dauka nik bezelako tupetakorik barrenen.
- A. JOA. Izena jakitea ere ez da guchi ¿tupetakua?
- PRAN. Neonek asmatu det ba.
- A. JOA. Ez zera aiñ doakabea ez, gaizu ori.
- PRAN. Ez uste nik; ba dira bi Donostiko zu-  
luan nere zintzotazuna artuko luteke-  
nak.
- A. JOA. Tira, tira; moldazaitez kalea joateko Gregoriocho topatzen dezun, eta datorrela beriala echera; Aitonan birea joan bear du ta.
- PRAN. ¿Non topatuko det kalla-morrian?
- A. JOA. ¿Zer zan ori, kalla-mor? calle Mayor esaten da emakumia; zuaz, zuaz lasterka.
- PRAN. Banijoa ba (*joaten da*).

### LAU-GARREN IRUDIA

#### Andre Joakina bakarrik

Zer egin bear det nik oraiñ. Laster

Benardo emen det, eta gosariya maniatu bearra... ariñ ariñ bat jarri bearko; gaurkoangatik pasako al da. (*joaten da*).

### BOST-GARREN IRUDIA

#### Benardo bakarrik

¡Au berua, mutillak! ontatik badegu arratzaldian zezen plazan, kaskua berotukodu orretik ederki (*au esaten du samarra kenduaz*). Gaur korrida ederra izango degu noski; ala dirudi beñepeñ; ¡ura jende pilla zegoan billeteak artzen diran lekuan! estu aldi ederra eman dirate baño, urtu ditut bi; bat, aitantzat; eta bestia neretzat. Ez dubela beñere ikusi esaten zuben, bañan aurten ez, ez du ori esango, eta gañera eraman biar det piška bat dotoretu ta. Berak soñian dauzkan zarpa zarrak kendu, eta jarri biar det edozein madrill tar bezin dotore. Ez da asko lotzatuko ez; eta etzayo irudituko batere geyegi dala arrentzat; ainda lassaya... Ba.. orainchen bokadu bat jan, ez daukat gose aundirik baño eta nere jirachua egitea nijoa nere lantegira (*abiatzen da sukaldeko ale aldera eta topatzen du Andre Joakina*).

### SEI-GARREN IRUDIA

#### Benardo eta Andre Joakina

- A. JOA. ¿Orain otorri alzera Benardo?  
BENAR. Orainchen allega'zia egin det.

- A. JOA. Gosaiteko asmuan etorriko ziñan noski e.....
- BENAR. Gosaiteko asmuan..... ez daukat gose audi aundirik ez, baño..... arrauz gordiñ bat jango det; pasako naiz arrekin.
- A. JOA. (*Jendeari*) Ala bearko. (*Benardori*) Otar chiki artan daude, eta artu sazu zeonek.
- BENAR. ¿Otarrian?
- A. JOA. Bai (*sartzen da Benardo sukalderra*).

## ZAZPI-GARREN IRUDIA

### **Andre Joakina bakarrik**

Ondo nekez datozte ayek ere; trena laster da eta aita an geldituko saigu nora pausoa eman ez dakila (*egoten da pishka bat ishillik*) uste det eldu dirala pauso soñuak nabaitzen ditut eskalletan; beak izango dira.

## ZORTZI-GARREN IRUDIA

### **Andre Joakina, Gregoriocho eta Pranchiska; onek ekarriko du opilla maltalpean gordia.**

- PRAN. Emen gera, echeko andria.
- A. JOA. Ordua da.....
- PRAN. Ez, andria, ordu laurdena.
- A. JOA. Esan nai nuben, ordu dala sekula etortze ezkero, zer da ori?
- PRAN. (*Maltalpetik ateratzen du opilla.*) Aldameneko panaderuak eman diran opilla; bañan nik bakarrik jateko esan dit.

A. JOA. Jan zan ba. (*Gregoriochori*) Zuaz Gregoriocho zuaz, aitonan birea eta ekarri zazu bakarrik galdu ez dedin.

GREG. ¿Laster etorriko alda, ama?

A. JOA. Bai, denboraz orainchen.

GREG. Banijoa ba ama «aufa» aitona gaur gure echera. (*Joaten da.*)

## BEDERATZI-GARREN IRUDIA

### *André Joakina eta Pranchiska*

A. JOA. Baño Pranchiska, orrelakua izan bear aldezu beti; ¿ez dezu ikusten mundu gustiyak farra egiten dizula?

PRAN. ¿Mundu gustiyak?..... bedorreka ez du askorik egitenba, kopeta argiya jartzen dit beñepeñ.

A. JOA. Nola nai dezu nik farra egitea, eman diskidazun tratuakin. Ba ditut beti echian kontatzalliak au edo ura egin dezula norbaitekin, eta chorakerisko kontuak beti zere burua umekerik aundiyanan dabilkizu; eta ni, asko penatzen naiz, batez ere zure ama tristea gatik, nere gastetako lagunik maitia; eta..... erriko neskachik argiyena zan. Bada sayatu saitez zu ere amaren pau-soak berdintzera.

PRAN. Bai premi ederra dauka echeko andria.

A. JOA. ¿Zergatik edo zeñek?

PRAN. ¿Nere amak; ez al daki zer trinki tran-kua egiten duen anka batetik?

- A. JOA. Bai, festetan chirristatu zalako.
- PRAN. Ez andria, anka bat okertua duelako.
- A. JOA. Orrengatik bada sayatu beardezu, ama doakabe tristeari ez deskusturik ematea, eta laguntzera bere lanbide penagarri artan.

### AMAR-GARREN IRUDIA

#### Lengoak eta Benardo

- BENAR. ¿Non degu Muticua?
- A. JOA. Aitonaren birea bialdu det, biriak galdu eta ibilli ez dediyen.
- BENAR. Oneskero allegatua izango da gure Tomas Yñañiyo ere, eta birean topo eman bear diyot iskribategira nijoan bitartez.
- A. JOA. ¿Orain ere joan bear al dezu?
- BENAR. Bai; gure nagusiyari etorri sayo gizon dotore antzeko bat eche baten garbitazunak edo eskriturak atera nai litukela, eta jiracho bat egin bear det (*au esatendu samarra jantsiatz*).
- A. JOA. Noiz etorriko zera glaster samar?
- BENAR. Ordun bete pasako det.
- A. JOA. Iya ba, aita, emen sai iduki gabe etorritzen zeren andik atera ta beriala.
- BENAR. Bai etorriko naiz (*joatenda*).

### AMAIKA-GARREN IRUDIA

#### Andre Joakina eta Pranchiska

- A. JOA. Tira Pranchiska; zuaz iturrira eta

- ekarrizazu sulla bat ur tantorik gabe  
nago ta.
- PRAN. ¿Tantorik gabe?..... beaz bedorri ere  
chorua da?
- A. JOA. ¿Chorua ni?
- PRAN. Bai, atzo esan zidanez bai.
- A. JOA. Ez dizut esan nik chorua naizenik, ez  
atzo eta ez gaur.
- PRAN. Bañan ez alda gogoratzen echecho  
andria, nola esan ziran neri, zaspitatik  
sei..... falta nituela?
- A. JOA. ¿Zer sei?
- PRAN. Tantuak.
- A. JOA. Egiya esan nizun.
- PRAN. Egiya da beaz, biyek choruak ge-  
rala.
- A. JOA. Begira; aspertu nazu orainchen nere  
begiyan aurrian ikustiaz, eta zuaz agu-  
ro esan dizuten lanera.
- PRAN. ¿Sulla bat ekarri bear al det?
- A. JOA. Sulla bat ur, bai, sulla bat ur.
- PRAN. Ekarriko det ba (*jendeari*) etzayo  
gogoratzen echecho-andriari guria atzo  
konpontzera eramana degula; baña su-  
lla bear baldin badu..... ni moldatuko  
naiz sulla ekartzeko.

## AMABI-GARREN IRUDIA

*Andre Joakina bakarrik*

Ez nezake iñola ere burutu nik neska  
tuntun tzar orrekin, eta biar goizerako  
prestatuko diskat bere arropa, eta me-

rezi ez lukan soldata, eta dijoala aingeru guardiyakoakin, amaika lotza ematen dirazun Pranchiska, bai, Ezdatik etorri dan ezkerostandik, mandatu bat zuzen egin diran. Nai luke sei peseta audi pagatu eskero, juiziyo geiñiago-ko serbitzariya.

### AMAIRU-GARREN IRUDIA

**Tomas Iñashiyo eta Gregorio (au "aitonaren bizkarrean).**

- T. IÑA. ¡Eup!... (*Gregorio bizkarretik utziaz*).  
A. JOA. Oi aita, ¿etorri alda?  
T. IÑA. Bai nere alala Joakina, etorri naiz zuen  
pesta eder oyek ikustera.  
A. JOA. Bai aita; aurten gain gañekuak ditugu  
Baño orrela abarkakin etorriko zan ba  
Donosti batera aita?  
T. IÑA. Kalian iñillo ibiltzeko ustian etorri naiz  
ba abarkakin.  
A. JOA. Beti baserritar, eta zerdiyote..... denak  
ondo?  
T. IÑA. Ba..... onemestian kontentu; eta.....  
zuek?  
A. JOA. Ondo gu ere, aita, Benardo topatu aldu  
birian?  
T. IÑA. Bai; eta esandit, etorriko dala beriala.  
A. JOA. Bai etorriko da. Eta Gregoriocho  
allegatu al zan trena orduko?  
T. IÑA. Ez; baño asalduda aguro ñamar ¡ba-  
nuen onen premiya!  
A. JOA. ¿Zer zan bada?

- GREG. Zera ama; korruan bilduak an zeus-kan iru caballero, eta beste bat; jefia izan bear ~~xuan~~. Danak onekin farres zauden.
- T. IÑA. ¿Quefia?..... nofia, izango uan. Ezuan beñepeñ arraz fiyatzen nerekin. Billete, batek, eta billete bestea..... ez dituk isildu neri amorrazi artian.
- A. JOA. ¿Es altzuen bada billeterik aita?
- T. IÑA. Banuen baño..... birian ankalamakill bat etorri zait, eta ateratzendu patrikaratik pistolan gisako bat eta billetea kendu ez dit ba... eta ori aski ez dala burla geyago egitiagatik (*eskubakin sena egiñaz*) ¡krask!..... eta zapela añako zulua egiñ, eta an ziak. ¡Nik makillakin!... rast... leyoa kolpia; eta jotzen det makillakik... serian... zutikako pozte batian, eta an gelditu naiz makillik gabe, (*jendeari*). Orra gure atzuak andregaitan egin ziran erregaluan paraderua.
- A. JOA. Bañan ¿beste gizon ayek, zer bear zioten?
- T. IÑA. Orregatik nuben bada okasiyua. ¿Nola nai sen duben Donosti batean kartoi zulatu ura ematia? (*Gregorion gatik*). Onek esan ez baziran emateko... astinduko niskan, batedon bateri chapeleko krabeliñ ori ayek.
- A. JOA. E..... utzi beza oraiñ gauz oyek alde batera, eta amaiketako piska bat egitea obe izango du?
- T. IÑA. Bai; oitura galduzko modurik ez

degu egin bear. Oriñe aski nuke beste gaitzik gabe..... iltzeko.

A. JOA. ¿Orisenda galgirua daukana? ¿orren-besté errenkuraken du, egun bateko amaiketakuak?

T. IÑA. Begira sazu Joakina, promesa det egiña eta ez nuke nai iñola ere utz egi-tea, zergatik ba-lakizu, gauz oyek...

A. JOA. Bai, bai, promesak egikaritu egin bear dute.

T. IÑA. Oriñen bera pentzatzen det bada nik, eta orregatik askotan... prestatzen naiz besperatik.

A. JOA. ¿Prestatu? ¿zertako?

T. IÑA. Esango diñat.

A. JOA. ¿E? ...

T. IÑA. Esango dizut, esan nai niñen neska.

A. JOA. Au ez da gero mendi basterreko eche ura. Emen zu itz egiten diote aita gustiak beren umeari.

T. IÑA. Uste gabekua unen, neska. (*Andre Joakinak begiratzen dio chit zorrolz*) Gastaiñ-Chulok nola ardu urruti šamar daukan erritik, ez naiz ni fiyatzen; ger-tatu bai liteke ba egunen batian man-dua beko erreka zulora eroritzia, eta ardo gustiya puntzuluan banatzia, eta gero..... ardondegiya batere ardorik gabe... eta ni nola ez bai naizen tontua... ¿zer egiten det? Orainchen ikusten det sagiyan ardo guchi šamar dagoala, urrengo eguneko kontuak atera ta..... estarriyan kurrunketako bat egiñaz,

esaten diot.... Joṣepiñaši.... ekatza bes-te erdi bat, eta nola aitzen ez duben gorra dalako, ez dit entzuten esaten diyoten artean..... Joṣepiñaši..... ekatza osua.

A. JOA. Oriſen da atzua.

T. IÑA. (*Kantatuaz.*)

Betetzen basua  
beti du besua  
emaſen prestua  
gelditu arteraño  
zagoya antzua.

A. JOA. Aita, ¿bersoetan ere dotore egiten du?

T. IÑA. Bai, ematen bai duteba bero oñdo-rian. Orrengatik bota det ori.

A. JOA. Ai bai, astu zitzaidan; baño oneskero laster emenda gure Benardo eta orduan egingo dut alkarrrekin.

T. IÑA. Noiz etorkodan Jaungoikoak daki.

A. JOA. Norbaiten pausoak badira orretik.

## AMALAU-GARREN IRUDIA

### Lengoak eta Benardo

BENAR. ¿Oneskero etziko zenduten etorriko ez nitzala?

T. IÑA. Etzi ez baño..... ez nuan uste etorriko ziñanik.

BENAR. ¿Nola ez dezu etzi bada orduan?

T. IÑA. Ez ote ziranba emango.

A. JOA. Bai, gizona; emango niyon.

BENAR. ¿Zer gero?

A. JOA. Amaiketakua; ez emendu egunik

faltatzen, eta taberna ardorik gabe geldituko balitz ere urengo egunian, besperatik eraten emenditu bat edo bi baso geyago.

- BENAR. Ederki egiten dezu ederki; berriz ere gordiñ egongo zerate bai zuek. ;Eta sekulan baño gasteago dago?
- T. IÑA. Baldimetan; bestela porru-jorra ederra daukagu. Baditu larogeita amabost urte beñepeiñ ta.....
- BENAR. ¿Zeñek zuk ala?
- T. IÑA. ¡Bai zera! sekulak.....
- A. JOA. Gizona, bere aldameneko aiton sar batengatik arida. *Shecula* deitzen diote.
- BENAR. Au..... au..... beti bromako gogua.
- T. IÑA. Eta..... (*estarriyan soñua egiñaz*) amaketakua egiteko gogua.
- BENAR. Bai, orainchen egingo degu; bañan ortarako nai genduke, soñian dituzun arrop-oiek, kendu eta guk ematen diskitzugunak jantzitzia. Gaur amabirjiña agustuko egunada, eta dotore dotore jantzita, etorri bear dezu nerekin amaketakua egitera; jendiak pentzatu desan, bañuetara etorri tako Madrill-tarrén bat zerala.
- T. IÑA. Gizona, ori besterik desio ez badezu, ajola aundirik gabe egingo deguba, zero milla deabru.
- BENAR. Baño korbata eta guzi, e...
- T. IÑA. Bai; baita... otorria ere, jantziko det buruan.

BENAR. Guasen beaz gela ontara, emen dau-kaskit zuretzat prestatuak.

T. IÑA. Guasen, guasen.... (*Sartzen dira gelan*).

## AMABOST-GARREN IRUDIA

### **Andre Joakina eta Gregoriocho**

A. JOA. Guasen gu ere, Gregoriocho. Lagundi bear dirazu baskariya prestatzen; Pranchiskak berdin gauz onik ez dit egingo, eta zuk mandatucho batzuek egingo diskirazu besterik ez badare, Pranchiskak bāñō zintzośio.

## AMASEI-GARREN IRUDIA

### **Pranchiska bakarrik**

Es nezake burutu iñola ere, echeko-andre onekin. Oraiñ ere sukaldean sartu orduko, asi zait betiko kantarekin. Nere ama etzala ni bezelakua, eta ez zuela nik bezelako chora keririk egiten. Igesi egin diot onera ¿zer demontre? Choruak ere bear dute bada mundu onetan, bestela choruan izena galduko litzake, eta ni nola bai naizen euskal-errieo alaba, asko penatuko nitzake gure iskuntza maiteari, itz bat bakarra galdu erazitzia (*egotenda pishka bat*). Oraiñ ere egin detba nerietatik bat. Iturriyan lendabizi topatu detan zulla buruan artu, eta echera ekarridet.

Arrapatzen detan guziya echeratu, eta alaz guztiak ere Pranchiska chorua. Ez dakit zulla zeñenadan oraindik, asaldu-koda nai dubena. Etzitzayon gogoratzen atzo nik autzi, eta konpontzera bi-aldua zala, eta nola ari bai zan isildu gabe... zulla bat ur ekartzeko, eta ekartzeko... orraba nik ekarri. Bai, Pranchiskari chorua deitu baño... oraiñ ere gizon-gai ederra badet nik beñepeñ. (*Itza piska bat ishilduaz*) Aldameneko panaderua det, eta... ez esan gero gure echeko andriari; egunero esaten ari-zaít, noiz ezkondu bear degun adierasiaz, ezbañaiz ni atrebitzen echeko andriari esatea, berak etorri eta esango diola. Bañan ortarako nai nuke lenda-bizi, amarea baimena, eta orduan esan desayola nai badu echeko - andriari; bestela asiko litzake gure eskontza urratu nayean eta... ezdet nai orrelakorik gertatzia. Atzo ere esan ziran nere Bonipašiok, gure estayak pasako genituela erri aundi, eta ikusgarri batian. Izena ere esan ziran; ez naiz ondo ondo gogoratzen orain baña.. Gauz asko ge-yago esan ziskidan, oraiñ astuak iguki nik, astuak... Burros, burros izan bear-du erriyan izena; zergatik lenago ere aditu diyot beiñ baño geyagotan, anai bat burrosen daukala soldado. Dana dala guk beñepeiñ egun onak pasako ditugu; eta gero... echeko-andre.

## AMAZAZPI-GARREN IRUDIA

### Lengoa eta Andre Joakina

- A. JOA. (*Sukaldeko ateau*) ¿Deitu egin ote du?
- PRAN. ¡Noiz bait ere lasai lasai bizi bear degu guk ere!
- A. JOA. Estu bizi aiz beñepeñ.
- PRAN. Oraiñ Bonipañio morroi dagoan beze-la, geroa ezda ala izango. Nagusiyak berak askotan esaten diyo, orainchen aspertu dala lanean, urteak ere gañeratu zaizkala, eta nola familiarik ez du ben pakean bizi nai lukela utzirik Bonipasio bere tokian... nagusi.

## EMEZORTZI-GARREN IRUDIA

### Lengoak eta Benardo

- BENAR. (*Au gelako ateau*) (*Andre Joakinari*) ¿Zuk deitu aldezu Joakina?
- A. JOA. (*Ishill antzian*) Ez, Pranchiska arida bere modu; utzi desayogun piška bat; eta laster ikara audi bat eman bear diyogu biyon artian.
- PRAN. Orduan bai esango dutela nere ausuetako lagunak: Pranchiska chit ondo kizi emenda. Panadei batian echeko-andre emengoak zorretan eskatzen diranean... ¿zer merezi luke ez ematia? bañan ez naiz orrelakua; taya bat kroskas betetzen duanean, zer bait pentzatuko det.

- BENAR. ¡Ez dira ametz charrak!
- A. JOA. Eman sayogun, Benardo.
- BENAR. Bai, guasen poliki poliki, nabaitu ga-be.
- PRAN. ¡Echeko - andriak nabaituko baniñuke!
- BENAR. Bat, bi, iru... lau.
- A. J. eta B. ¿Zer ari zera emen?
- PRAN. ¡Orra!.... u.... (*Joatenda sukaldera korraka*).
- BENAR. ¡Ori larriya... mutillak!
- A. JOA. Bai; orida ikara eman diyoguna.

### EMERETZI-GARREN IRUDIA

Lengoak Tomash Iñashiyo (*Au sartzenda beste trajea daukala eta larritazun aundiarekin*).

- T. IÑA. ¿Zer da? ¿Zer da?
- A. J. eta B. (*Abiatzen dira itzuli*). ¡U!.... ¿zeinda emen?
- T. IÑA. Neonek bai aldakit zein naizen.
- A. JOA. ¿Demontre?...
- BENAR. Ikaratu dezu andre Joakina.
- T. IÑA. Bai gizona Benardo ere bai: pishka bat.
- BENAR. Papera egin det.
- T. IÑA. ¿Papera?.... obia zaude (*eskua galitzan ipurdian jarririk*). Ez dakit ez otedtan egin nik.....
- BENAR. ¿Zer?
- T. IÑA. Ju..... oraindik ez det egin noski ez baño.....
- BENAR. Guasen Tomaś Iñaśio, guasen amaike-takua egitera.

- T. IÑA. Guasen bai (*Abiatzenda aurretik*).  
A. JOA. ¿Eta dotore ematen dio gero traje orrek?  
BENAR. Ain dotore..... atzetik begiratu, eta zartai kojo bat diruri.  
A. JOA. Ori... ori..... Eta juan gizona ajola ge-yago gabe.  
T. IÑA. (*Jiratuaaz*). Bai algera edo ez.  
BENAR. Segi, segi; eta Joakina, ordu baterako.....  
T. IÑA. Ordu baterako emen gera baskaiterako. Eta Benardo.  
BENAR. ¿Zer degu?  
T. IÑA. Ez gero ni eraman otarria maiz samar erantzi beardon tokietara; zergatik.....  
BENAR. Ez gizona.  
A. JOA. Ariyo beaz; eta ondo ibilli.  
T.I. eta B. Gero arte.

### OGEI-GARREN IRUDIA

*Andre Joakina bakarrik*

¡Nola utzi otedirate gela neri! apostu egingo nuke, zarpa zar guziak lurrian banatuak utzi dituela. Miatu bear diozkat patirkarak ezer utzi ote duan. (*Sartzenda eta zarpak eskuetan dituela ate-ratzenda iruditegira*). ¡Bai zera! ez ogi apurrik ere. Gaur Santa Katalinako Zubian aiziak eramango baliyo chapela nere aitari..... bei baten diruan kaltea baluke. Anditu pipa, pospolo kaja bi

musu-zapi, tabakua, eta ez dakit nik Renbat gauza geyayo. Ez datik nik no-la moldatzen diran gizon zar oye;k; ;on-do trabazale dira bai! Orainchen bas-kariya moldatu bear det amaiaketa-er-diyak dira, eta ez dago denbora geye-girik. Pranchiskari deituko diok gela antolatzera, eta ni... nijoan lenbailen (*Deika*) Pranchiska...

## OGEITABAT-GARREN IRUDIA

### Lengoa eta Pranchiska

- PRAN. ¡Andria!
- A. JOA. Jase itzazu zarpa abek, eta antolatu ge-la au, ni sukaldera nijoan.
- PRAN. Bai, andria, bai.

## OGEITABI-GARREN IRUDIA

### Pranchiska bakarrik

¡O! ¡zer esan ote dute nagusi echeko-andriak! Izanere ustenuan poliki poli-ki echeko-andre biurtzen ari nizala. ¡Oyek gausak etortzen diru burura es-kontzak diralako! Bañan ez det uste gausa charrik esan detanik. Echeko-an-driak beñepeñ gela au antolatzeko ba-karra esan dit. Egiñzadan bada aškar aškar. (*Artxenditu Tomash Iñashioren arropak*). Ezda aiñ makal jantziza eto-rri orretikan. Oyek jendiak izaten dira menditik ateratzen ez diran personak.

¿Zer uste ote zuan zala Donostian? Orrengatik gazte gaztetan dikan izandu det desioa, erri audieta serbitzea ateratzeko. Amak ezdit utzi nai izan du oraindaño bere aldamenetik bañan pakean ez nion usten, eta askenerako orretik utzi ziran. Eta laster eskontzen naizenean Bonipasiokin onera ekarriko det deskantuan bizi dediyen.

## OGEITAIRU-GARREN IRUDIA

### Lengoa eta Bonipashio

- BONIP. ¿Oraiñ ere lanian Pranchiska?  
PRAN. Bonipasio ¿zu emen?  
BONIP. Baialdakizu z rtara etorri naizen?  
PRAN. Echeko andriari adierazitzora esko-tzen gerala, seguru aski.  
BONIP. Ori ere esan nai nioke, bañan...  
PRAN. ¿Bañan zer?  
BONIP. Nere zulla iturritik zuk ekarri dezula esan dirate, eta orregatik etorri naiz.  
PRAN. ¿Zuria al zan?  
BONIP. Bai, neria zan.  
PRAN. ¿Zu non ziñan bada orduan? neskachen batekiñ jolasten ingurun batian?  
BONIP. Badakizu Pranchiska, zu besterekiñ ez detala itz egin, eta zu zerala nere maitia.  
PRAN. Eskerrikasko... eta ¿non z ñan bada?  
BONIP. Neška mutillan kantak aditzen ne-

gon ȝez aldezu jende pillat bat ikusi an  
inguruau?

- PRAN. Bai ikusi det.
- BONIP. Anchen negon ba.
- PRAN. ȝErosi aldituzu kantak?
- BONIP. Bai, emen ditut.
- PRAN. Ikusi, ikusi, zenen politak diran.
- BONIP. (*Kantak ateriaz.*) Zea jartzendu.... eche-ko andre batek nola arrapatu zituen biyek, echian ederki labetakua egiten ari zirala.
- PRAN. ȝLo alzeuden bada?
- BONIP. ¡Bai zera! labetakua egiten.
- PRAN. ȝEta echeko-andriak arrapatu? oriñen bai dala tontuak izatia.
- A. JOA. (*Ojuka barrendik*) Pranchiska ȝzer egin senduben?
- PRAN. ¡Oi orra, echeko-andria!
- BONIP. ȝNon gordeko naiz?
- PRAN. Emen emen, Bonicho; mai azpi ontan.
- BONIP. ȝErraz alda? (*sartuaz*).
- A. JOA. Pranchiska.....
- PRAN. Or naiz echeko-andria.....
- BONIP. ȝZer egin bear det nik oraiñ?
- PRAN. Egon bertan, beriala etorriko naiz.

## OGEITALAU-GARREN IRUDIA

### Bonipashio bakarrik

(*Buruba asalduaz.*) Esandu etorriko dala; baño etzait iruditzen etorriko danik uste beziñ aīsa. Eta nik ȝonela egon biar aldet choriat bat kayolian be-

zela? Ni emen ikusiko baniñuteke, esango luteke kanariyon bat, edo bestela ontzen bat naizela, iriñez betetako arropa abekiñ. Jakiñ izan banuen onen eche dotoria zala... eznitzan etorriko orretik arropa zar obekin (*mai azpitik ateriaz*) ¡Auñen da emengo dotoretazuna! bai kuadro politak, onelakuak erosi biar ditugu guk ere eskontzerako (*dinbrea eskuetan artuaz*). Eta onoko au ȝer ote da biatza jart eko tokiyare badu? A..... au badakit zertarako izango dan; gure nagusiyak ere, onelakua uste det dala, badu bere gelan, eta gabez edozeiñ ordutan, kafia edo zerbait berotzeko iza-tten zala esan ziran neskame Anthonik. Bañan onek.... nola berotu lezake. ȝezdiot iñola ere antzik ematen? ȝBiatz leku ontan zerbait egiten ote diote?... kalkatuta sua aterako sayo. Ikusi bearded, berdiñ onen suà ezdu iñork ikusikota (*kalkatzendu*). ¡O! .... ȝerda au mutillak oraiñ norbait etorriko zait (*dinbrea utziyaz*) Boni... pasa chokora.

## OGEITABOST-GARREN IRUDIA

### Lengoa eta Pranchiska

PRAN. ¡Bonipañio!

BONIP. ȝZer?

PRAN. ȝZuk jo aldezu trr.....r.....riñ?

BONIP. Ez nik; gañean dagon pañanu ori azi zait irrintzika.

- PRAN. Eta echeko-andriak oraiñ neri galde-  
tzen didanian zeiñ zan, ¿zer erantzun  
bear diot?
- BONIP. Esan sayozu..... nik ez detala jo beñe-  
peñ.
- PRAN. Zuk ez dezula jo... baño galdatuko dit  
ia zeiñ zanba?
- BONIP. Esan sayozu... bere gisa jo dubela.
- PRAN. Ori esan bearko, eta Bonipasio, oraiñ  
emendik joatia obe izango dezu, zerga-  
tik laster nagusiyata etorriko dira, eta  
ayek etorri ezkero or egon bearko de-  
zu ordu pare batian.
- BONIP. Ekarri zaidazu zulla bála.
- PRAN. Echeko - andria or dala..... ez nuke  
nai.
- BONIP. ¿Zer daba?
- PRAN. Presaka arida ta.
- BONIP. Eta ez aldio igartzen zulla ez dala  
beria.
- PRAN. ¡Bai zera! bere presakin or arida ar-  
dalla biziyan, eltzia zuan gañean jar-  
tzen dualakuan, sartayan gañian jarri  
ezduba?
- BONIP. Sartayan gañian ¡ba!... ¡ba!.... ¡ba!....
- A. JOA. (*Barrendik*). Pranchiska.....
- PRAN. Banator.
- BONIP. Esango aldiot echeko-andriari oraiñ.
- PRAN. Ez, ez, oraiñ ez, etorri zaitez arratzal-  
dian iñor ez dagoala (*joalenda*).
- BONIP. (*Ateriaz*) Joan egin bearko det. Esan-  
dit arratzaldian iñor ez dagoala otortze-  
ko. Nola liteke iñor ez dagoala etortzia?

eta gañera nori esango nioke? Maliziya pranko badu orrek beñepeñ. Guasen beaz; baño gaur ez naiz geldituko gure eskontza echeko-andriari adierazi gabek. Nola edo ala esan bear diot (*gor-detzenda*) (*beriz asalduaz*) ¡Oh!..... norbait badator, ¿oraiñ zer egin bear det nik? Boni... chokora (*sartzenda azpian*).

## OGEITASEI-GARREN IRUDIA

### Zartzenda Benardo dena larritua

Aita galdu zait; nayagonuke orainchen... echian balegoke. Bañan ezda etorriya izango; edozeñekin isketan gelditzendata. Ikusiko det emandan (*jotzendo dinbrea*) ¡Joakina! ¡Pranchiska!

## OGEITA ZAZPI-GARREN IRUDIA

### Andre Joakina burruntzaliyakin eta Pranchiska. Tarte-ka tiratzendio Bonipashiok gottenatik Pranchiskari.

- A. JOA. ¿Zerda Benardo? ondo larritua zaude.  
BENAR. ¡Bai Joakina, bai!  
A. JOA. Eta aita... non dezu?  
BENAR. Ortara etorri naiz onera iya asaldu otedan.  
A. JOA. ¿Nola nai senduben ura bakarrik etortzia?  
BENAR. Bakarrik..... etorri..... juan da ba bakarrik.  
A. JOA. ¿Zer egin bear degu oraiñ?

- BONIP. Joan billatzera denak, alde egiñ desadan nik.
- A. JOA. Bañan ȝnola galdu zaizu bada?
- BENAR. Nola galdukoz..... esango dizut. Echetik anka atera degunerako, asi zait erosi biar litukela zorrotz arri bat, itai bat, soka..... eta ez dakit zer geyago. Esaten nion, baño gizona, biar goizean erosiko ditugu trenan ordua baña lenago; etzaitezela estutu..... ¿Orrela joan nai altzenduke batresna oyek erostera? farra egingo lizuteke. Bañan arrek aditu ¡bai zere! Ikusten zituan barkillero gustiari, galdazkak ote zakiten non saltzen ziran. Bañan ayek nola euskeraz etzekiten, farra murritz egiten zioten; eta..... ¡orduan jartzen zan gośua ari burlaka ari zirala, eta jo egin bear zituela. Nolaiz bat ere, egin det modua «Bille barrera» musika piškak bat aditzera eramateko. Uste nuan an egongo zala pakean, eta ¿bai aldakizu zer egin diran?
- A. J. eta P. ¿Zer?
- BENAR. Pachara ederrian chapela erantzi eta pipai errekiñez betetzen asi zait. Ni orduan dana lotzatua, jende gustiya ingurutu zaigu, eta ez nitzan ni atreibitzan ezer esatia. Ezer esan baniyon, asiko sitzaidan erretoliken bat ateratzen eta ¿zer egin det? bera zegoan tokitik, piška bat apartatu.
- A. JOA. ¡Eta gizona paraje artan bakarrik utzi!

BENAR. Keñu egiten nion nik begiakin eta alnuan gustiyakin, eta alako batian ala diyo «bulebar» gustiyak aditzen duela. Ez dago presarik gizona, oraindik «Kaišomotell» jo bear emen dute ta, ikusi bear degu zerdan ori ere.

A. JOA. ¿Kaišo motell?

BENAR. Bai, «Guillermo - tell» esan nai zuan, jende guztiya algaraz asi zayo, oke-rragua zan denak neri begira! Orduan bai edozer gauza egingo nubela. Nere begiyak iñor ere etzuten ikusten, baka-rra ikusten, zuten lanbru bat..... Eske-rrak eskribategiko lagun bat etorri zai-dala, eta jolaz bidea eman dirala, bes-tela.... uste det bertan erori nitzala, ¡Orduan nere lotza churriskatu det piš-ka bat! Gero nere lagun ori joan zaida-nian, erreparatu det eta... etzan aitaren arrastorik iñon. Eta egiya esaten dizut Joakina, albebatera, poztu egin naiz aita falta ikusi detanian.

A. JOA. ¡Ez naiz ni asko postutzen!... Jaungoi-koak daki oraiñ nondan.

BENAR. Ezda galduko ez, chanchangorria baño lotzagabio data. ¡Bildur bat det!

A. JOA. ¿Zer?

BENAR. Proeztu gizacharren batek artu, eta berkin eraman ote duan. Bañan joango naiz ni salto batian, eta galdetuko det an otedaukaten. Eta Pranchiska dijoala kai aldera, iya modu ontan topatzen degun.

- A. JOA. Zuazte bai eta... zu Pranchiska, zuk galda sazu ikusten dezun gustiari.
- BENAR. Ni sukaldeko ate ontatik irtengo naiz lenbailen alleatu nayen (*joatenda*).
- A. JOA. Tira Pranchiska aškar, aškar.
- PRAN. Banijoia, andria.

## OGEITAZORTZI-GARREN IRUDIA

### **Andre Joakina eta Bonipashio**

- A. JOA. Banuen bildurra bai, zerbait astokeri egingo zirala neri orrek gaurko eguna joan bañon lenago.
- BONIP. Nik ere egingo det ba astokerin bat; orainchen aspertzen asi naiz onela egotez ta...
- A. JOA. Eta gure Benardo tontuak, utzi gizona modu orretan bakarrik. Egondu naiz burruntzaliyakin joko ote dean. ¡Ainbeste sutu nau!...
- BONIP. Arrayia... gośua ziok au.

## OGEITA-BEDERATZI-GARREN IRUDIA

### **Lengoak Pranchiska eta gero Tomash Iñashio**

- PRAN. Echeko-andria... emen dator.
- A. JOA. ¿Billatu al dezu bai aguro?
- PRAN. Topo egin det echeko-atian.
- A. JOA. ¿Bakarrik al zetorren?
- PRAN. Beste gizon batek erakutzi dio non sartu, eta beriala joan eginda; ez dakit arrek ekarri duan oneraño.
- A. JOA. ¿Nonda bada?

PRAN. Emen zan nere atzetik bertan.

A. JOA. Iya berriz kalera joaten zaigun.

### OGEITA AMAR-GARREN IRUDIA

Lengoak eta Tomash Iñashio (*au sartzenda zorrotz arri bat, itai bat eta soka besapetik arrastaka dubela eta patrikaran dulzaina*). *Soka muturrar artzendu Bonipashiok mai azpitik.*

BONIP. ¿Zeinda au? ¿Gobernadoria?

A. JOA. Gizona gasaldu al zera?

T. IÑA. ¿Asaldu?..... ez dakit asaldu baño, larrutu beintzat bai.

A. JOA. Bat edon batek eman diskak epelak.  
¿Non dik larrutu saitzte?

T. IÑA. (*Eskuakin patrikara erakutziaz*) Emedik

A. JOA. ¿Bañon non edo nola?

T. IÑA. ¿Non? Janchi edo .. zerbait orrelako izeneko denda bat zan. Etzan tontua ez izen ori jarri ziona. Neri beñepeñ iachi dirate enplazto ederra Gauza pranko erosi ere egin ditut baña... Ara; onoko soka au, itaya eta zorrotz arriya eta beste onoko (*patrikaratik ateriaz*) dulzaina au, ¿zenbat kosta dirala uste dezute?

A. JOA. Gizona utzi sayozu kostiari. Benardo gisarajua anda zure billa joana dena larritua.

T. IÑA. ¿Larritua?..... ni beñepek guchi estutzen naiz orrekin, geyago estutzen nau-

te, nere bi gurdi pirrill ayek. Bartarratzian ez dizkat errazki kendu gure atzuari ta...

## OGEITAAMAIKA-GARREN IRUDIA

### Lengoak eta Benardo

- BENAR. (*Dena poztua ikusirik echian*) ¡Emendek! ¡Emendek!
- BONIP. Soka-muturra (*tiratzendio sokari*).
- T. IÑA. Eh.... eh..... soka..... soka..... (*abiatzen da soka jasotzea*).
- BENAR. ¡Ez gizona! (besotik elduaz). ]
- T. IÑA. ¿Zer ezetz?
- BENAR. Ez datorrela iririk.
- T. IÑA. Bai ordia soka joan nerij besapetik (*ustendio Benardok*).
- BENAR. ¡Ah!..... Eta ¿nola alde egin dezu andik gizona?
- T. IÑA. Nola alde egin detan... soñua bukatu danian, beste gustiyak an joan dira tabernara, eta ni ere bai ayekin batean. Bapo egin det amaiketakua beste bi adiskide an egin dituanakin, gero ayek esan dirate non saltzen diran tresna abek.
- BENAR. Askenerako orretik seria egin dezu.
- T. IÑA. Bai nik; ez det gerorako ezer utzi nai.
- BENAR. ¡Onemestian!
- T. IÑA. Bi durotan.
- BENAR. Ez nuan ori esan nai; onemestian kontentu nai zela.

- T. IÑA. Ez ni.
- BENAR. ¿Zenbat esan dezu balio dutela?  
(*Berak pagatu naiko du*) abek balio  
dute.... amairu peseta.
- BONIP. ¡Au agure trastia!
- BENAR. ¿Ez dezu ba bi duro esan?
- T. IÑA. Nik bai.
- BENAR. ¿Nola liteke orduan amairu peseta  
izatia?
- T. IÑA. ¡Au komeriya!.... Ara; dendariyak  
esandit (*tratuau ari balitz bezela*) iru  
duro; eta nik beriz bi duro.
- BENAR. ¡A!.... aski..... aski..... bai, bai eta ge-  
ro..... amairu pezetaño jechi dendariya.  
(*Sinistatu du*) ¡Orraba egiya! amalau  
pagatu ditut, baño zuek erriyetan ema-  
teko bildurrakin amairu esan dizutet.
- BONIP. Agure au, malezi utza da.
- BENAR. Tira amalau pesetak.
- T. IÑA. (*Eskua luzatuaz*) Utzi zazu gizona.
- BENAR. Tori, tori, artu ni kontentu naiz oraiñ  
beñepeña....
- T. IÑA. Bai ni ere.
- BONIP. ¿Zer egin bear det nik oraiñ?
- A. JOA. Tira, guasen baskaitera.
- T. IÑA. ¿Ez aldegu soñu piška bat joko lenda-  
bizi?
- BONIP. ¡Oriše falta genduben!
- A. JOA. ¿Ez aldezu lenago naikua aditu?
- T. IÑA. ¿Nik bai, baño zuek ez?
- BENAR. ¿Eta zeretzat aldezu ori? (*dultzaina-  
gatik*).
- T. IÑA. ¿Zenentzat ba, andriantzat? ¡Neretzat,

neretzat! emendik aurrera zartu gei a  
gu lanerako; eta su basterrian jarri  
gaztañak janez, eta andriak bersua bot  
eta nik au jo..... urte piśar obek orrela-  
še despeditu bear ditugu.

- BENAR. Iya ba nola moldatzen zeran?.... josazu  
piśka bat baskaitera joateko.
- T. IÑA. Nik jotzen detan gośotazun eta grazi-  
yarekin, dantzatuko dira maya eta de-  
nak. Baño..... ¿non degu Gregoriocho?  
norbaitek dantzatu bear luke (*Pran-  
chiska joatenda billa*).
- BONIP. Ni saletua nago beñepeñ; ankak piśka  
bat biguntzeko, dana gogortua nago.

## OGEITA AMABI-GARREN IRUDIA

### Lengoak eta Gregoriocho

- PRAN. Gisarajua leziyua ikasten ari zan.
- T. IÑA. Tira amar zentimokua. Gregoriocho  
dantzatuko zera e?....
- GREG. (*Artzendio*) Bai jauna.
- T. IÑA. ¡Oh au gauza sentitzen det biotzean!  
Gogoratzen zait gaztea nitzala nola bil-  
dutzen ziran nere soñuaren ingurura  
jai egunetan, ingurueta neskacha eta  
galai gazte guztiyak. ¡Ayek zoñu poli-  
tak jotzen nituen! ¡Makiña batek esaten  
ziran etzala munduan besterik, nik ne-  
re dultzainakin bezela biotz gaizuak  
postutzen zuenik. ¡Ez dakit zer nabai-

tzen detan nere barren ontan au eskuetan arkitzen detanian! Mundu guztiyari on égiteko gogua etortzen zait. Uste det etorriko balitz nere gana norbait bere miseriaren kondaira ezanaz, emango niokela nerea dan guztiya, Benardo nere zuyari ere, emango niozka-ke amalau pesetak baño..... gure atzuan kokotzeko «brih»..... jartzen diran ille zuri ayek....: ez naiz ari..... Jo desadan bada. Gregoriocho, prestatu e.....

- GREG. Lotzatu egiten naiz bakarrik aitona.
- A. JOA. Tira Pranchiska, zu ere saletua egongo zera bai; eta ia nola moldatzen zerten biyok.
- PRAN. Bai, andria, bai.
- BONIP. ¿Bai?..... baita ni ere.
- T. IÑA. (*Astenda jotzen edozein ariñ ariñ.*)
- A. JOA. Orren ederki.... Begira zayozu Benardo gure aitaren intentziyuari.
- BENAR. Begira zayozu Joakina, gure mayaren saltuari.
- A. JOA. ¿Ori?..... ¿ori?..... Nola liteke au; maya dantzan.....
- BENAR. Badegu emen zerbait zorginkeri, ikusi desagun. (*Kentzendu estalpia.*) ¿Zein da emen? (*ishiltzenda soñua*).
- PRAN. ¡ O !.... ¡ galdu gera ! orra tontu orrek zer eginduen.
- BENAR. ¿Zein da emen? galdetzendet.
- BONIP. ¡On Nikolas-eneko panaderua!
- BENAR. Beriala atera azpi ortatik (*ateratzenda*).

- A. JOA. ¿Ori ere ikusi bear genduen? Ez dago  
zer esanik. ¿Zertara etorri zera onera?  
BONIP. Esango diotet ba egiya. Ni etorri naiz  
onera sullaren billa; eta....
- A. JOA. Zure sullik ez degu onera ekarri guk.  
BONIP. Bai, andria; Pranchiskak berea zala-  
kuau, iturritik ekarridu.
- A. JOA. ¿Zuk ekarri aldezu?  
PRAN. Etzan isiltzen sulla bat ur ekartzeko,  
eta ekartzeko, eta guria nola baizan  
konpontzera eramana, lendabizi jabe-  
rik gabe..... topatu detana ekarri det.  
Bañan, ez da ortara bakarrik etorri an-  
dria.
- A. JOA. Esan dezala ba....  
PRAN. Esango nioke..... nerekin eskondu nai-  
duela esatera etorri dala, bañon ez  
diot esango; berak esan dezayola.
- A. JOA. ¿Ez dezu bada zeonek esan?  
PRAN. Bai bañan ori chanchetan zan, ez du  
balio orrek..... Esatera nua Boni.... Ara  
bada zinetan, nerekin eskondu nailu-  
kela esatera etorri da, sullaren aitza-  
kiyan.
- A. JOA. Biyok eskondu.  
BONIP. (*Aurreatuaz.*) Bai andria biyok eta....
- A. JOA. Aski, aski..... ederki ederki egingo de-  
zute, asko eta asko postutzen naiz, eta  
biar joango zera zere amarengana adie-  
razitzera bai..... eta zure nagusi eche-  
ko-andriak ere zerbait lagunduko di-  
zute, ikusirik zure amaren doakabeta-  
zuna, eta nere lagun aundiya dalako.

PRAN. Eskerik-asko, echeko-andria; eta denboras emen izangodu nere ama, gazte denborako kontuak kontatzeko. Asbo estimatzen det bedorren sariya, bakkerra eskatzen diot emengo jendeari chalocho bat, Tomaš Iñašiyoren izena onratu dezazuten.

## JESTENDA BURTIÑA







